

Futbola

Aurkibidea

Sarrera.....	1
Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (1).....	1
Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (2).....	2
Futbolaren gerra.....	3
Lanbidea eta futbola (1).....	4
Lanbidea eta futbola (2).....	4
Ebazpena.....	5
Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (1).....	5
Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (2).....	5
Futbolaren gerra.....	5
Lanbidea eta futbola (1).....	5
Lanbidea eta futbola (2).....	5

Sarrera

Futbola taldekako kirol bat da, hamaikana jokalariko bi talderen artean baloi esferiko batekin jokatua. 250 milioi jokalarik praktikatzen dute munduko 200 herrialde baino gehiagotan; eta beraz, munduko kirolik hedatuena da, eta baita diru gehien mugitzen duen kirola ere, saskibaloiarekin, 1 Formularekin eta golfarekin batera. Futbola bere muturreko bi aldeetan ate bat duen zelai laukizuzen batean jokatzen da. Jokoaren helburua baloia aurkako taldearen atean sartzea da.

Futbola antzinarotik jokatzen den baloidun jokoetako batetik eratorritako kirola da. Gaur egungo kirolaren arauak 1863an sortu ziren, Ingalaterran The Football Association elkarteak futbol-arauak sortu zituenen.

[Futbola. Euskal Wikipedia.](#)

Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (1)

→ **Entzun audioa eta erabaki zein den erantzun zuzena.**

Bernardo Atxaga. Euskadi Irratia 2016-10-17 

1-Bernardo Atxaga(k), etxean zegoela igande arratsalde hartan, _____ .

- Mendizorrotzako futbol-zelaian kantuan zebiltzan jokalaria aditu zituen
- futbol-jokalaria, zaletuak, umeak: denak ari ziren zerbait ospatzen Mendizorrotzan
- etxetik atera behar izan zuen zorionaren atzetik; berak ere Alavesen garaipena ospatu nahi izan zuen

2- Futbolaren inguruan gertatzen dena kapitalismoaren isla da. _____ .

- Dirua irabazi ezik, talde osoak zakarrontzira botatzen dituzte taldeen kudeatzaileek
- Jokalaria ere, zahar-antza hartzen dutenean, irabazirik ez dakartenean, bota egiten dira
- Arrakasta izan duenari saria ematen zaio

3-Taldeen kudeatzaileak ez ezik, jokalaria ere izan ohi dira logika kapitalista horren ikono; _____ .

- diru-gurdikada galantak irabazten dituzte eta, gehiago irabaztearren iruzur fiskala egiten dute
- salbuespenak salbuespen, diruzale errukigabeak dira
- dirua erruz irabazten dute eta kamioetan gordetzen dute

4-Bernardo Atxagaren ustez, futbola munstro bat bilakatu da eta dena inbaditu du. _____ .

- Galiako bazter guztiak ere inbaditu ditu
- Eskoletan ere sartu da, eta umeak ukabilka eta ostikoka aritzen dira beraien artean futbol-jokalaria balira bezala
- Eta goibeldu egiten da ikusten duenean umeak ere, futbolariak bezala, golak ospatzen

5-Hizlariaren iritziz, Mallorcako eskola horretako patioan faxismoaren izpiritua zegoen. _____ .

- Eta etsipenez pentsatzen du ez dagoela itxaropenik, faxismoak bazter guztiak inbadituko dituela
- Gallartan bertan ere, urrutira gabe, umeek, mutikoak batik bat, jolastoki osoa hartzen dute
- Zorionez, baina, oraindik erromatarrek ez dute Galia osoa inbaditzerik izan, oraindik badira logika horri aurre egiten diotenak



Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (2)

→ **Hemen duzu entzun berri duzun audioaren transkripzioa. Bila iezaiezu sinonimoa letra lodiz agertzen diren hitz eta esapideei.**

Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!!

Bernardo Atxaga. Euskadi Irratia, 2016-10-17

Igande gau batean, etxean nengoela, **kantu-hotsa** iritsi zitzaidan. Zabaldu nuen leihoa, eta ohartu nintzen: **Gasteizko futbol-zelaiari ari zen jendea kantuan, Mendizorrotzan. Han sortutako doinua hiri guztira zabaltzen zuen haizeak. Gainera, argitasun izugarri bat zegoen alderdi hartan.**

Zer gertatzen zen? Jabetu nintzen, luze gabe, **Alaves futbol-taldeak irabazia zuen partida, eta 1. kategorian, 1. dibisioan zegoen azkenean. Ordubete geroago kantu-hotsak eta argitasunak indartsu zirauten. Eta Mendizorrotza zoriotsu hartara joateko erabakia hartu nuen. Badakizu, ni ere zorionaren atzetik ibiltzen naiz, eta joan nintzen. Iritsi eta hantxe, zelai berde distiratsuan, zorionaren probak: jokalaria batzuek dantza egiten zuten zaletuekin; beste batzuek korrika-saioren bat umeak atzetik zituztela, harrapaketa-**jostaketan** bezala. Bozgorailuek behin eta berriz errepikatzen zuten garaipenaren oihua: Alaves 1. kategorian dago! Gora Alaves!**

Handik hilabetera entrenatzailea bota zuten, geroxeago jokalaria guztiak bota zituzten; jokalaria guztiak bat izan ezik, oker ez banago. "Hala, orduan arrakastaren saria", esango zuten denak ere **zapuztuta. Taldearen zuzendaritzak komunikatu bat atera zuen: entrenatzaile zein jokalaria haiek ez ziren Lehen kategorian aritzeko egokiak. Hamar jokalaria berri ekarriko, erosiko, zituzten horretarako.**

Kapitalismoa zer den galdetzen diogu maiz geure buruari, zein den bere logika nagusia. Bada, begira, begira diezaiegun futbolaren inguruan gertatzen denari, begira diezaiegun futbol-zelaietako zazpi mila metro karratuen kudeatzaile horiei; irabaztea beste helbururik ez dute. Dirua irabaztea esan nahi dut eta zehaztu nahi dut. Ez dago beste ezer tartean. Ez dago beste balio nagusirik. Eta, azken finean, ez dago pertsonarik. Pertsonak ere, kasu honetan jokalariaik, gauzak dira, trapuak edo kafe-gailuak gauzak diren bezala: erabili eta gero **zahar-usaina hartzan dutenean edo **pitzatzen** direnean, zakarretara botatzen dira.**

Jokalaria ospetsu batzuk ere, **Messi delako hori nabarmenena, logika horren ikono dira. Erruz irabazten dirua, kamioika, eta, hala ere, iruzur fiskalaren bidez gehiago irabazi nahi dute: kapitalista **gordinaren** kodizia.**

Izango dira salbuespenak, eta batzuk ezagutzen ditut; esate baterako, Sevillan jokatu zuen Canouté ... Ba hark fundazio bat egin zuen Afrikan (Malin, eskola, milaka eskola egiteko edo ...). Gogoratzen naiz Real Madrilen eta Bayern-en jokatu zuen Paul Breitner-ek ere ba dirutza bat eman zien greban zeuden ba langile batzuei, ez?

Oro har, munstrokeria baten kutsua dauka, gaur egun, futbolak. Aurrerapen teknologikoak bitarte, hau oso garrantzitsua da, dena inbaditu du, inperio erromatarrak Galiako bazter guztiak inbaditu zituen bezalaxe. Eskoletako patioak ere inbaditu ditu. Patio horiei begiratu eta **ume koskorak tropoiltuan ikusten ditudanean zilipurdika bata bestearen gainean gol bat ospatzen oso serio, Bernabeun edo Nou Campen baleude bezala, ba "bihotz ilune egiten jata", bihotz iluna egiten zait.**

Duela gutxi, badakizue, **Mallorcako patio batean** futboleari ari ziren hamabi mutilek, hamabi, ostikoka eta ukabilka zauritu dute zortzi urteko neskato bat. Zergatik eta, balaia hartu zuelako!

Zer uste du jendeak dela faxismoa? Faxismoaren izpiritua patio horretan zegoen. Eta zer harreman dago patio horren eta zazpi mila metro karratuko futbol-zelaiaren artean? Nahi dutena esango dute zaletuek,

eta zaletu **ondoek**, baina seguru asko harremana, handia da.

Dena galdua ote dago? Ba, zorionez ez, ez dago dena galdua. Badago gure Galia inbaditu honetan erresistitu egiten duen herrixka bat, badago Asterix eta Obelixen herriaren parekorik: Gallarta. Bai, e!, Pasionaria jaio zen Gallarta bera.

Txani Rodriguezek zioen lehengoan El Correon argitaratutako zutabea. **“Jakin berri dut Gallartako ikastetxe batean ez dagoela asteazkenetan futboleant jolasterik”.** Errepikatu egingo dut. **“Gallartako ikastetxe batean ez dagoela asteazkenetan futboleant jolasterik”.** Irakasleek azaldu dutenaren arabera, jolastoki osoa hartzen dute mutikoek baloiari emateko, eta futbolzale ez direnak, neskak batik bat, erabat baztertuta gelditzen dira, estututa. Neurri hori hartu dute genero-indarkeriaren kontra beste hainbat ekimenen artean.

Ba, nik mezu bat bidali nahi diet asteazkenetan futbola galarazteko erabakia hartu duten irakasleei. **Nire mezua da: eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!!!**

Anker
Arraildu
Elkarren
Errukigabe
Itzulipurdika
Kamioika
Motroiloan
Muturtu
Olgeta
Oste
Soinu
Zahar-antza hartu

Futbolaren gerra



→ Entzun eta aukeratu erantzunik zuzenena.

Juanjo Sanmiguel. Euskadi Irratia. 

1- 35 urte pasatu ondoren, _____.

- badakigu futbola izan zela gerra horren eragilea
- ez dago argi zein izan ziren gerra horren eragileak
- argi dakigun gauza bakarra da zenbat jende hil zen

2- Mexikoko munduko txapelketako kanporaketa hartako lehen partida _____.

- Tegucigalpan, El Salvadorren jokatu zuten
- Hondurasko hiriburuan jokatu zuten
- El Salvadorrek irabazi zuen

3- Partidaren hurrengo egunean, _____.

- El Salvadorreko selekzioaren hotelean jende piloa bildu zen
- El Salvadorreko egunkariak salatu egin zuten beren taldea gaizki tratatu zutela
- El Salvadorrekoei janari txarra eman zieten jateko

4- Hurrengo partida San Salvadorren jokatu zuten _____.

- eta horregatik irabazi zuen El Salvadorrek
- eta han ere oso gaizki tratatu zituzten El Salvadorreko jokalaria
- eta istiluak izan ziren El Salvadorrek irabazi ostean

5- Berdinduta izanik bi taldeek hirugarren partida bat jokatu behar zuten; orduan, _____.

- El Salvadorren tankeek muga pasatu zuten
- komunikabideak, El Salvadorrekoak gehienbat, salaketa latzak egiten hasi ziren
- El Salvadorrek Tegucigalpa bonbardatu zuen

6-Azkenean, bakea onartu behar izan zuten alde biek, _____.

- Nazio Batuek derrigortu zituztelako
- milaka hildako egon zirelako
- Amerikako Estatu Batuek derrigortu zituztelako

7- Bost egunean zehar gerran egon ziren bi herrialde hauek. Gerra hau futbolagatik izan zela diote, _____.

- baina, dirudienez, beste arrazoi batzuk ere izan ziren
- eta, dirudienez, hala izan zen
- eta hala izan zen

Lanbidea eta futbola (1)

→ **Zein da testua ondoen laburbiltzen duen aukera?**

Andoni Egaña. Euskadi Irratia. 

- A.** Futbolariak izugarrizko zortea daukate, izan ere, eurak baino itsuago dira kanpokoak euren lanarekiko.
- B.** Lanarekiko atxikimendua izatea gauza handia da eta hori ogibide gehienetan gertatzen da. Futbolean, berriz, profesionalak eurak barik, horretan lan egiten ez dugunok garaitsuak.
- C.** Futbolariak barik, geuk, kanpokook, kobratu beharko genuke inork kobratzekotan. Izan ere, futbolariak baino gehiago bustitzen dugu elastikoa.

Lanbidea eta futbola (2)

→ **Aukeratu hitz egokia hutsunea betetzeko.**

Lanbidea eta futbola

Andoni Egaña. Euskadi Irratia.  *transkripzioa*

Nor bere lanean itsua izatea bezalakorik ez da.

Kanpotik begira dagoenak zorotzat ere har dezake bere lan-arloko zerbaiti buruz, suhar, etengabe datu mordoa emanaz ari den ⁽¹⁾ _____. Polita da bi-hiru idazle literaturari buruz hizketan entzutea: “halakoren liburuko halako pasarte, halako idazleren halako liburu, halako ⁽²⁾ _____ ez dakit zer hitz”.

Bertsolariak ere kasta berezia gara:

“Laurogeita seiko txapelketako kartzelako gaien halakok estreinatu zuen doinua. –Bai, motel halako errimatan egin zian poto behin Arozamenak, halako plazatan, halako egunetan hankaluze piloan egin zituena; ezkerreko bertsoa, eskubikoa, hasieran karga gutxikoa, arrazoi onekoa, baina narras tolestatua”.

Gainera, ⁽³⁾ _____ lanarekiko atxikitasuna itsuaren hau ez da gertatzen xarma izan dezaketen lanetan bakarrik; hiru edo lau enkofradore elkartzen badira erretenez, zoluaz, arlearraz, galipotaz, *dunperrez* eta *fenwickez* arituko dira. Eta bi-hiru idazkari elkartzen badira datu-basez, fitxa-kontrolaz, serbidoreen bizkortasunik ⁽⁴⁾ _____, txostenez, eskanerraz.

Kanpotik begira dagoenak ez du ulertuko bakoitzaren ⁽⁵⁾ _____, baina, lana ondo egitekotan, itsu-puntu hori behar da. Azken batean, ⁽⁶⁾ _____ buruz denok daukagu ahotsa, falta izaten zaiguna da altaboza ahots hori zabaltzeko. Eta aski izaten da lanbide bereko lagun mordoxka bat elkartzea ahotsak eta altabozak bat egin dezaten.

Baina bada arlo bat Hego Euskal Herria dantzan daukana, horrelakorik ematen ez dena: futbola, ditxosozko futbola. Konturatu bazarete, ⁽⁷⁾ _____ gertatzen da futbolarekin. Kanpotik begira gaudenotan gehienok garaitsuak. Badakigu halako partidutan halako jokalarik zer gol sartu zuen, eta gol hura sartzeko zer jokalariri izkin egin zion ere bai, eta izkin hori ezkeraldera edo eskuinaldera egin zion ere gogoan daukagu. Barruan daudenek, berriz, entrenatzaile, mediku, futbolariak ... ez dute sekula ⁽⁸⁾ _____ esplikaziorik ematen. “Ahal duguna egin dugu. Gaur ez dugu zortetik izan. Aurkariak gehiago izan dira. Elastikoa izerdiz blai egin dugu.” eta horrelakoak baino ez dituzte esaten.

Hauek badute altaboza; ahotsik eza salatzen du, ordea, altaboz horrek. Ez diozu bati entzungo: “kontxo! Golean nik izan dut erruaren zati bat. Harritu egin nau Ximaok egin didan jokaldiak. Karrokada bat bideo ikusi ditut bereak eta, orain sei hilabete Balaidosen, Juanfrani, egoera berean, barrurantz egin zion ihes eta, joan zen astean Nou Campen, Olaizolari ere barrurantz, nik barrurantz espero nuen eta kanpora egin du”. Ez, holakorik ez diezue entzungo. Futbola da arlo bakarra itsua kanpokook bizi ⁽⁹⁾ _____ barrukoek baino gehiago. Horregatik pentsatzen dut kobratu ere guk egin beharko genuela, inork ⁽¹⁰⁾ _____

1. a) honek b) hura c) profesionalak	2. a) hitzalditan b) hitzaldian c) hitzaldietan
3. a) norbere b) nork bere c) norberak	4. a) ezaz b) ezak c) faltaz
5. a) zoroa b) eroa c) ezina	6. a) norbereari b) nork bereari c) norberari
7. a) batetik bestera b) batekoz bestera c) goitik behera	8. a) ustezko b) badaezpadako c) tajuzko
9. a) garena b) zaiguna c) duguna	10. a) kobatzekotan b) kobratuz gero c) kobratu ezean

Lanbidea eta futbola (1)

Zein da testua ondoen laburbiltzen duen aukera?

A. Futbolariak izugarrizko suertea daukate; izan ere, eurak baino itsuago dira kanpokoak euren lanarekiko.

B. Lanarekiko atxikimendua izatea gauza handia da eta hori ogibide gehienetan gertatzen da. Futboleak, berriz, profesionalak eurak barik, horretan lan egiten ez dugunok garaitsuak.

C. Futbolariak barik, geuk, kanpokoak, kobratu beharko genuke inork kobratzekotan. Izan ere, futbolariak baino gehiago bustitzen dugu elastikoa.

Aukera zuzena: B

Lanbidea eta futbola (2)

1- B	2- A	3- B	4- A	5- A
6- B	7- B	8- C	9- C	10- A

Ebazpena**Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (1)**

1-B 2-B 3-B 4-C 5-C

Eutsi Asterix, eutsi Obelix, eutsi Gallarta!! (2)

<i>Kantu-hotsa</i> <i>Harrapaketa-jostaketan</i> <i>Zapuztuta</i> <i>Zahar-usaina hartu</i> <i>Pitzatzen</i> <i>Erruz</i> <i>Kapitalista gordina</i> <i>Umeak tropoiluan,</i> <i>zilipurdika bata bestearen</i> <i>gainean gol bat ospatzen</i> <i>Zaletuek, eta zaletu ondoek</i>	Soinu Olgeta Muturtu Zahar-antza hartu Arraildu Kamioika Anker, Errukigabe Motroiloan Itzulipurdika Elkarren Oste
--	---

Futbolaren gerra.

1- B	2- B	3- B	4- C
5- B	6- C	7- A	